

## **GIL 9** Arritzagako sakaneko ebaki Jurasiko-Urgondarra



Arritzagako ebakiaren ikuspegia. Aurrealdean, kareharrizko banku urgondarrak nabari dira; haien ondoren, zona bigunago eta buztintsuago bat, Purbeck Weald faziesei egotzia, eta, jarraian, haranaren hondoko kareharri jurasikoak. Seriea alderantzikatua dago, Aralarreko antiklinaleko alpe alderantzikatuan dagoelako.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 1' 31,16 ''

Long.: 2° 3' 21,71''

- **UTM koordenatuak:**

X: 576.910,06 m

Y: 4.764.059,10 m



### Nola iritsi

Amezketatik, hartu GI-4081 tokiko errepidea Ondarreko bordetara igotzen den bidea hartu arte; gero, oinez, haranean sartuko gara. Sekzio osoa ebakitzen duen Arritzaga haraneko errekaostoen eskuinaldeko bidezidorretik ere igo daiteke.



Aralarreko Jurasiko itsastar ondo estratifikatuaren ikuspegia. Erraza da ammoniteak, belemniteak, gasteropodoak, brakiopodoak, oolitoak... aurkitzea.

## GILaren deskribapen laburra

Arritzaga erreka-errekastoak Aralar mendilerroko serie jurasiko-kretazeoa higitu du iparraldeko partean, Gipuzkoako lurraldean. Serieak hiato batzuk ditu, baina EAEko Jurasiko itsastarreko ebakirik onena da, eta, horretaz gainera, Behe Kretazeoko metakinetarako iragaitza erakusten du Purbeck Weald konplexuaren bidez.

Pardeluts eta Buruntzusun artean, erreka-errekastoak serie jurasiko osoa ebakitzen du; seriea, hegoaldetik iparraldera, honela osatuta dago: Behe Liaseko kareharri dolomitikozko seriea, Goi Liaseko serie tupatsu ammoniteduna, Doggerreko kareharrizko serie ammoniteduna eta estratifikazio gurutzatua eta hareharri karedunak dituzten kareharri oolitikoak.

Meategietako zonan, ugariak dira Jurasiko-Kretazeo iragaitzako konglomeratu, kareharri eta buztin beltzak (Malm-Barremiarra); modu diskordantean antolatzen dira higadura-etenune baten aldera Doggerreko unitateen gainean, eta 10 milioi urte baino gehiagoko hiato bat osatzen dute. Errudista aptiarrak dituzten kareharriekin kontaktuan dagoen sekuentzia horren sabaia etenune bat da, berekin dakarrena Barremiar-Behe Aptiarreko zenbait unitate falta izatea.



Amabirjinarriko zamalkaduraren ikuspegia: Jurasiko basala Jurasikoaren gainerakoaren gainean ezartzen du, posizio ia bertikalean eta antiklinala marrazten diola. Zamalkaduraren oinaren gainean, eta Ganbo eta Pardarriko gailurretaraino, Aralarreko serie jurasikoaren lodiera ikus daiteke.

Meategien eta Amezketaren artean, Aptiar-Behe Albiarreko errudista eta koralak dituzten kareharri mikritikoak azaleratzen dira. Erriebe malkartsuak dira; erreastoak zeharkatu egin ditu, eta batez ere goialdean malda handia duen arroila bat eratu du. Kareharri horiek, halaber, zonako akuifero interesgarri bat dira. Haren posizio estruktural alpetarra alderantzikatua da, zeren eta, azpiko seriearekin batera, Aralar mendilerroaren iparraldeko frontearen Goi Albiarreko material tupatsuen gaineko zamalkadura-blokea eratzen baitu.

Interes estratigrafiko hutsaz gainera, haranak badu Uzkuetikozko zamalkadura-fronte ikusgarria ere, zeinak arrastatze-toles deigarri bat sortzen baitu eta sakaneko serie jurasikoa, partez, errepikatzen baitu.

## Behatzeko punturik onena

Erreastoarekin batera doan bidezidorretik; bestela, Ondarreko bordetako begiratokitik, haranaren ezkerreko ertzean.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 87, GIL 83, GIL 112, GIL 106.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 10, GIL11, GIL12, GIL13, GIL 14, GIL 15, GIL 16, GIL 17, GIL 18, GIL 19, GIL 122, GIL 126.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa		●		
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	GILak Arritzagako haran osoa hartzen du. Ebaki jurasiko urgondarrak eta Amabirjinarriko zamalkadurak definitzen dute harana. Haran bera definitu da GIL 87-an ere, interes geomorfologiko glaziarragatik. Nabarmentzekoak dira, halaber, bakanak izateagatik, Arritzagako kobre-meategiak.				

## Bibliografia espezifikoa

- *Mapa Geológico EVE 1:25.000.*
- Soler Y José, R. 1971. "Estudio geológico de la Sierra de Aralar (Cuenca Cantábrica oriental)". Boletín Geológico y Minero LXXXII, V, 406-428.
- Soler Y José, R. 1971. "El Jurásico marino de la Sierra de Aralar (Cuenca Cantábrica oriental): los problemas postkimméricos". Cuadernos de Geología Ibérica 2, 509-532.
- Duvernois, Ch., Floquet, M. eta Humbel, B. 1972. *La sierra d'Aralar (Pyrénées basques espagnoles): stratigraphie, structure.* Mémoire synthétique, thèses de doctorat de 3e cycle. Inst. Sci. Terre Univ. Dijon, 264 or.
- Elosegi, J. (1974). *Las minas de cobre de Aralar (1732-1904).* Soc. Guipuzcoana de ediciones y publicaciones. Donostia.
- López-Horgue, M. A., Zapata Sola, M., Cerezo Arasti, A., Garrote Ruiz, A. eta Muñoz Jimenez, L. 1990. *Mapa Geológico del País Vasco a escala 1:25.000, Hoja 89-III (Ordizia).* Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Bilbo.